POZA

EMOZIOAK LANTZEN

LIVEWORKSHEETS

Positiboak diren gertaerak gertatzen zaizkigunean sortzen zaigun emozioa edo sentsazioa da poza.

Geure buruari jarritako helburua lortzean edo sentsazio atsegina somatzean azaltzen dena.

Aukeratu zein egoerataz senti dezakegun hori, hiru erantzun dira egokiak:

Arazoren bat konpontzen dugunean.

Lagunik ez dugunean.

Maite ditugun lagunekin gaudenean.

Lagun batek kasu egiten ez digunean.

Besteei zoriontsu izaten laguntzen diegunean.

Gehiegi larritzen garenean.

LIVEWORKSHEETS

MASKORRETAN

Olatuak oso pozik sentitzen ziren itsasoan zeudelako. Bazekiten beraiei esker umeek ondo pasatzen zutela, haien gainetik saltoka eta gazteek tablen gainean irrist egiten.

Baina, batzuetan itsasoak lasai egon nahi izaten zuen eta atsedena hartzera bidaltzen zituen olatuak, eta orduan hondartzara txikienak bakarrik iristen ziren. Hondartza pozik zegoen olatuen joan-etorri nekaezina ikustean. Gogoko zuen haien abestia, nahiz eta oso polita izan, pertsona batzuek bakarrik entzun ohi dutena. Olatuek arrastaka itsas ertzeraino ekarritako maskorrak ere pozik zeuden eguzkia ikusteaz. Azkenean, hondartzara ailegatu eta zain geratu ziren haurren bat gerturatu eta hartuak izan arte.

Ur ertzean Elena izeneko neskatila bat zebilen. Eskuan pertz urdina zeraman eta noizbehinka makurtzen zen itsasoak hondartzara eramandako maskor eta harriak jasotzeko. Hondarrean erdi lurperatuta zegoen maskor handi bat hartu bitartean esan zuen: " Zein polita den ! Pixka bat bustiko dut hobeto ikusteko."

Uretara hurbilduta maskorra garbitu zuen Elenak, bere edertasuna eta itxura paregabea agerian utziz. Etxera eraman zuenean aitak esan zion:

- Elena, hau erromes maskorra da.

- Aita, zer da erromesa ?

- Erromesaldia egiten duena, Done Jakue bidea esaterako. Horrelako maskorra Compostelako Santiagora doazen erromesek bereizgarri modura eraman ohi dute. Non aurkitu duzu ?

- Ur ertzean. Gogoko ditudanak nire bildumarako hartzen ditut.

- Ziur maskor honek baduela zer kontaturik ! Zenbat gauza ikusi ote ditu !

LIVEWORKSHEETS

Hurrengo hiru egunetan Elenak beti maskorra berarekin eramaten zuen eta bizitzan zehar ikusitakoa kontatzeko eskatzen zion arren, maskorrak ez zion erantzuten.

Egun batean maskorrak jasotzen zebilen andre bat ikusi zuen Elenak. Neskatilarengana hurbilduta galdetu zion andreak:

- Utziko al didazu ikusten jaso dituzun maskorrak?
- Bai, eta zuk erakutsiko al dizkidazu zeureak ? -esan zuen Elenak.
- Noski – erantzun zion andreak.

Hondarrean elkarrekin eseri ziren, maskorrez betetako pertzak hustuz.

- Arraioa !! A zer maskor ederra duzun !! -esan zion andreak.
- Nire aitak erromes maskorra dela esan dit.
- Bai horixe !! Zoragarria da ! Ez al duzu uste ? Ziur nago maskor horrek noiz edo noiz Done Jakue bidea egin badu gauza asko ikusi izango dituela.
- Gauza bera esan dit aitak, horregatik eskatzen ari natzaio ikusitakoa kontatzeko, baina ez dit ezer esaten.
- Agian ez diozu arretaz entzuten -erantzun zuen andreak-. Egin behar duzuna zera da: esku artean maskorra hartu eta adi-adi entzun berak kontatu nahi dizuna. Begiak itxi eta imajinatu ikusi dituen lekuak, ezagutu dituen pertsona guztiak, entzun dituenak...

Arratsalde horretan bertan, gurasoak bazkaldu ondoren, atsedena hartzen ari zirela, emakumeak esandakoa egin zuen Elenak. Bere burutik irudi ugari pasa ziren : mendi berdeen paisaiak, teilatu arbeladun herri txikiak, euria, eguzkia, baina baita jendearen arteko elkarrizketak eta isiluneak ere. Bere barnean zerbait berezia sentitu zuen, emozio izugarria zen, eta une horretatik aurrera erromesa izango zela eta Done Jakue bidea egingo zuela erabaki zuen.

Arratsaldeko azken orduak isilik eman zituen eta oherakoan amak musua ematera zihoala, Elenak galdetu zion:

- Ama, ni erromesa izan ninteke ?
- Alabatxo, zer dela eta galdetzen didazu hori ?

LIVEWORKSHEETS

- Ama, hondartzan andre batekin topo egin dut eta

maskor batek kontuak esan dizkit ! Hurrengo udaran, zergatik ez dugu Done Jakue bidea egiten ?

- Begira, oso goiz da horretan pentsatzeko, oraindik ez baita aurtengo udara bukatu.

Biharamunean, gosaltzen ari zirela, aitak esan zion:

- Elena, Bide Jakue egiteko gogoa duzula esan dit amak.
- Bai aita, izugarri gustatuko litzaidake.
- Baina oraindik txikia zara, koxkortzen zarenean ikusiko dugu.
- Baina nik orain joan nahi dut ! Mesedez...

Eztabaida bukatutzat jo zuen arren, aitari ezin

zitzaion burutik kendu alabak esandakoa. Harrigarria eta, era berean, hunkigarria iruditu zitzaion alabak Done Jakue bidea egin nahi izate hori, berarentzat ere, gaztaroan garrantzitsua izan baitzen. Udarako azken egunak turismoko mapei eta liburuxkei begira eman zituen, eta oporrak bukatu aurretik alabari esan zion :

- Elena, zutaz harro nago, eta zoriontsu sentitzen naiz erromesa izan nahi duzulako. Ba al dakizu gaztetan Done Jakue bidea egin nuela ? Niretzat esperientzia zoragarria izan zen eta gauza asko ulertzen lagundu zidan. Pentsatu dut, oraindik oso txikia zarenez, datorren udaran egin genezakeela Santiago bidearen zati txiki bat. Zer iruditzen zaizu ?

Hori entzutean, Elenak aita besarkatu zuen. Zoriontsu zegoen.

- Eskerrik asko, aita ! Gaur bertan hasiko naiz prestatzen.

Handik aurrera Elenak, aitarekin batera, prestatzen jardun zuen eta lepotik zintzilik eramaten zuen beti hondartzan aurkitutako maskorra.

LIVEWORKSHEETS

Erantzun ondorengo galderak:

- Inoiz hartu al duzu maskorrik edo harririk hondartzan? Zein dira gehien gustatu zaizkizunak?

- Inoiz entzun al duzu ezer Done Jakue bideaz? Galdetu inguruan duzun jendeari ea zerbait kontatzen dizuten horretaz.

- Inoiz sentitu al duzu erabateko pozik eta zorionik egin duzun bidaiaren batean? Nora zindoazen? Eta nondik zentozen?

- Zu Elenaren lekuan egon izan bazina, zer egingo zenukeen maskorrarekin?

- Ondo deritzozu aitak izan zuen ideiari?

LIVEWORKSHEETS